

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN ERABAKIA

Erabakia, Ikerketaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUko ikertzaile doktoreen 2021eko espezializazio deialdiaren testu aldatua argitaratzeko agintzen duena, lan erregulazioaren arloko lege aldaketetara egokitzeko.

Lehenengoa.- UPV/EHUko ikertzaile doktoreen espezializazio deialdia argitaratu ondoren, 2021eko abenduaren 30ean, lan erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu zen. Horrez gain, gaur egun indarrean dagoen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen aldaketa izapidetzen ari da Legebiltzarrean, eta datozen hilabeteetan onartzea aurreikusten da, ziurrenik deialdiaren kudeaketa prozesuaren azken fasearekin bat etorriz.

Bigarrena.- Bi lege aldaketa horiek deialdia ebazten den unean izango dute indarra eta eragina, eta horrek zaildu egingo du deialdia ebatzi ondorengo prozesua. Besteak beste, ezin izango da erabili KONTRATUEN EZAUGARRIEZ ari den 2. oinarriaren 2. paragrafoan adierazitako kontratu modalitatea, bertan dioelarik: *Deialdi honen lortutako lan kontratua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen (aurrerantzean ZTBL) 22. artikulua arautuko du eta arduraldi osokoa izango da.*

Hirugarrena.- Deialdiaren hasierako idazketan egindako aldaketen helburu bakarra da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 22. artikuluan oinarritutako kontratu modalitatea erabiliko dela bermatzea.

Laugarrena.- Azalpen gisa, hasierako idazketa aldatu duten oinarriak zerrendatu dira: 2.6 oinarria, 13.2 oinarria, 13.3 oinarria, 13.4 oinarria eta 13.5 oinarria.

Leioan, 2022ko ekainaren 6an